

## **ARAOZTARRAK: BANDIDUAK, ERREBELDEAK ETA ABENTURAZALEAK**

Zergatik dute Araoztarrek fama hori? Arrazoi ezberdinengatik. Bada antzinako istorio bat, gaur egunera arte ahoz-aho pasa dena, Araoztarrak bandiduetatik datozela dioena. Eta iturri gehienek diote Lope Agirre, Espainiako koroaren aurka altxatu zen Hego Amerikako esploratzaile eta konkistatzaile famatua Araotzen jaio zela.

### **BANDIDUETATIK SORTUAK**

1950 urte inguruan, Gesaltzako Graziano Anduagak honela kontatu zion Bitoriano Gandiagari, Araoztarren bandidu jatorriari buruz:

***Oñati “Villa por sí” zan denporan, herriko mutil batzuk Bilbora fan eta lapurreta batzuk egin ei zittuain. Eta Oñatiko buru egiten eben kondiai esan otsain handik, horreik gaizkilliok harrapo eta hile gin bihar zirala. Kondiak erantzun osten hilttia baiña kastigu gogorragoa emungo ostela. Hor eukala haitz-bittarte bat eta haruntz botako zittuala han bizitako, eta han hilko zirala berez. Hareik berez hil ziran, baiña ondorena itxitta. Horregatik esaten daue araoztarrak bandiduetatik sortuak dirala. Hori askotan entzun dogu.***

### **LOPE AGIRRE: “ASKATASUNAREN PRINTZEA, JAINKOAREN HASERREA...”**

(Araotz, 1510 - Barquisimeto, Venezuela, 1561)

Espainiako erregeari zuka eginez zuzendutako bere gutun batean Agirrek bere buruari Erromesa eta Askatasunaren Printzea ezizenez deitu zion; beste batzuentzat “Jainkoaren haserrea” zen eta espainiar etsaiek “eroa” edota “tiranoa” deitu zuten. Jainkoaren Haserrea izendatu zuten.

Agirre **heziketa eta idazkera onekoa** zela diote historialariek, hala erakusten dutela bere idatziek. Askorentzat Agirrek euskal nortasunaren muturreko bi aldeetako ezaugarriak zituen: **hoberena eta txarrena egiteko gauza zen**, balentria loriatsuenak zein irain zitalenak. **Ohoreari goreneko balioa ematen zion**: irainik ez zuen barkatzen, derrigorrez mendekatu beharrekoa zen hori; bere ohorea gordetzeko bere alaba hil zuen.

Urrearekin ametsetan, espedizio batean izena eman zuen Araoztarrak eta **26 urte inguru zituela Perura heldu zen. Berehala izan zen ezaguna bere krudeltasuna, indarkeria eta azpilanengatik.**



Nikaraguara ihes egin beharra izan zuen handik eta han epaile batek atxilotu eta jendaurrean zigorrazazi zuen, indiarren aurka egindako gehiegikeriengatik.

Epaileak, Agirreren mendekuaren beldur, ihes egin zuen, etxebizitzaz etengabe aldatuz. Esaten denaren arabera, **Agirrek hiru urte eta erdiz jazarri zuen epailea oinez, 6.000 kilometro zeharkatuz.** Azkenik, Kuzkoko epailearen etxean bere mendekua bete zuen.



Berrogei urte zituela, **El Dorado izeneko lurralde mitikora urre bila abiatu zen** espedizioan sartu zen, Pedro Urtsua baztandarraren aginduetara. Amazonas ibaia goitik behera jaitsi zuten. Urtebete geroago, Pedro Urtsuaren eta haren ondorengo Fernando Guzmanen erailketan parte hartu zuen eta Agirrek deklarazio bat sinatzera behartu zituen bere menpeko kapitain eta soldaduak, **Agirre bera Peru eta Txileko errege izendatzen zuena.**

Urte berean Margarita uhartea hartu zuen (Venezuela), izuaren bidez kontrolatu zuena. Baina, Panama konkistatzeko saiakera egin zuenean, koroaren aurkako bere matxinada amaitu egin zen. **Barkisimeton inguratuta, bere alaba Elvira eta bere jarraitzaileetako asko erail zituen.** Azkenean atxilotu eta exekutatu egin zuten. **Bere gorputza zatikatu eta**

**Venezuelako hainbat hiritara eraman zuten.**

### **“Hemen egia dioena erotzat jotzen da”**

Inperio oso bati aurrez-aurre borrokatu zitzaion gizon bat izan zen. Bere erara, justizia eskatu zuen. Hil baino lehentxoago **Espainiako Felipe II.ari gutun errebelde bat idatzi zion, erregeaz nazkatuta zegoelako.** Gainera, Agirrek beltz eta indiarrei berdintasun eskubideak eman zizkien.

Behin Agirrek hau aipatu zuen: "Hemen egia dioena erotzat jotzen da". **Agirrek pentsatzen zuena esan eta egin zuen.** Hori izan zen Lope Agirre, Agirre erromesa, Agirre eroa, Agirre tiranoa, Jainkoaren haserrea, Askatasunaren Printzea.